

Iggg,
UrK Tripuko mutila

Jatorrizko izenburua: Oi, Caveboy!
Copyrighta: © Bloomsbury Publishing 2010
Testua: © Alan MacDonald 2010
Irudien copyrighta: © Mark Beech 2010
Itzulpena: © 2014 Regina Larrucea

© 2014, DESCLÉE DE BROUWER, S.A.

Henao, 6 - Bilbao
Tlf.: 94 423 30 45
www.edesclee.com
info@edesclee.com

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein eratako berregintza, komunikazio publiko eta moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitu bezala har daiteke (Zigor Kodeko 270. artikulua eta hurrengoak).

CEDRO erakundeak
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org)
babesten ditu aipatu eskubide horiek.

ISBN: 978-84-330-2740-5
Legezko gordailua: BI-1151-2014
Inprimatzailea: RGM, S.A. - Urduliz

Iggy, Urk Tripuko mutila

ALAN
MACDONALD

Ilustrazioak
Mark Beech

Itzulpena
Regina Larrucea

desclée

Edukiak

1 Ez du Koskorrik	4
2 Sugeekin moldatzeko Gida hasiberrientzat	15
3 Urk Tribuaren Festa	26
4 Zaharren Biltzarra	46
5 Agur, Urk Tribua	57
6 Marmarka hitz egiten	69
7 Usain-belarraren lurrina	80
8 Gaixoago jarri laster	89
9 Huppa plan bat pentsatzen gaiatzen da . .	98
10 Herriaren Ongietorria	109
11 Egin ihes!	126
12 Zer dator muino hartatik?	132
13 Iggy, Urken Semea	142
14 Beste gauzatxo bat	150



Oso-oso aspaldi...

Duela aro asko, mundua toki pasati eta mortua zen. Ez zegoen ez etxerik, ez dendarik, ez eskolarik, ez irakaslerik, ez autorik, ez komunik, ezta kakahuete-gurinezko ogitartekorik ere. Existitzen ez ziren gauzak hainbeste ziren, non guztiak idatziz gero lipuru honen orrialde guztiak peteko pailirateke eta ez litzateke istorioa kontatzeko tokirik geratuko.

Mundua nolakoa zen imajinatu nahi baduzu, irudikatu mendiz, basoz, haitzez eta harriez jositako paisaia amaigabe bat. Egia esan, harriak nonahi zeuden, garai hura harri Aroa zelako.

HARRI ARROA

Bagoan pasapiztia mordoa bizi zen, adibidez, hartzak, hortz handiko tigreak eta mamut iletsuak, hau da, ilea mozteko premia handia zuten elefanteak ziruditen animalia erraldoiak. Normalean, jendea bagoetara ez sartzen gaiatzen zen. Triputan elkartzen ziren, seguruagoa zelako eta errazagoa zelako janaria prestatzeko. Tripu horietako bat Urk Tripu zen.

Urkak ligkarti samarrak ziren, eta pizar eta hanka iletsuak zeuzkaten (pereziki emakume patzuek). Animalien larruekin janzen ziren eta Urk haranera eta haranetik igarotzen zen ibaira begira

zegoen muino pater tontorreko haitzuloetan bizi
ziren. Haitzulo horietako batean Iggy izeneko mutil
bat bizi zen. Ez zen tribuko pertsonarik garaiena,
ezta iletsuena ere, baina irudimen handia zuen, eta
horrek arazo askotan gartzzen zuen. Jakina, hori
beste kontu bat da . . . Baina zorionez, horixe da
hastear dagoen istorioa . . .





1. Atala

Ez du Koskorrik

Igggy esnatu zenean, Aita sua pizten ari zela ikusi zuen. Zeregin horretarako makilatxo batzuk, belar lehor pixka bat eta bi suharri behar izaten zituen, baita hitz itsusi mordoa ere.

—Arranotzarra! —esan zuen marmarka.

—Aita? —deitu zion Iggyk, haitzuloaren itzaletatik azalduz.

—Orain ez, seme —bota zion Aitak zakarki—. Lanpetuta nago.

Igggy hantxe geratu zen puska batez, Aita ez gogaitzen ahaleginduz, isilik eta noizbehinka hasperen egiten. Eta orduan...

—Aita, begira.

—URKEN IZENEAN! —egin zuen orro Aitak—. Nola piztuko dut sua etengabe ari bazara marruka?

—Barkatu, baina begira zer aurkitu dudan.

Aitak burua biratu zuen.

—A. Harri bat.

—Bai, baina laua da. Begira, ez du koskorrik —Iggyk harria laztandu zuen. Luzea eta leuna zen eta behi-kaka zapaldu baten forma zeukan.

—Eta zer? —esan zion Aitak.

—Erabilgarria izan litekeela pentsatu dut, besterik ez.

—Mmm —erantzun zion Aitak marmarka, eta hartxintxarrak elkarren kontra jotzeari ekin zion berriro. Aldarte txarrean zegoen. Azken aldian, sarri egoten zen umore txarrez. Hotzagatik, hezetasunagatik, haitzulo baten zoru gogorrean lo egin behar izateagatik eta inoiz ere ez zuelako bakerik eta isiltasunik.

Iggy kokoriko jarri zen Aitaren ondoan.

—Aita? Nora doa ibaia?

—Nora doan?

—Bai.

—Ez doa inora. Ibai bat da. Ekarri makila horiek, seme.

—Baina nonbaitera joango da.

—Zergatik?

—Beno, atzo begira egon nintzen eta mugitzen dela ikusi nuen. Dar-dar egiten du aurrerantz, edo antzeko zerbait.

—Dar-dar? Ez esan zentzugabekeriarik!

—Lasterka doa... haranean behera. Baina nora?

Aitak bizarra laztandu zuen. Ez zuen sekula pentsatu ibaiari buruz. Han zegoen, besterik gabe. Hotza eta hezea zen, neguan izan ezik, orduan hotza eta izoztua izaten baitzen.

—Auskalo! —esan zuen.

Nondik ateratzen zituen mutikoak ideia haiek? Nonbaitera doazen ibaiak, koskorrik gabeko

harriak... Zergatik ez zen gauza garrantzitsuez kezkatzen eta kito? Suaz, adibidez. Suak bero mantentzen zaitu, eta norbaitek piztu behar du. Hartxintxarrak elkarren kontra jotzeari ekin zion berriro. Orduan, txinparta bat hegan atera eta belar lehorrera erori zen. Aita txinpartaren ondoan makurtu zen eta eskuekin haizetik babestu zuen.

Iggyk berriro begiratu zion harri lauari, eta zertarako erabil zezakeen pentsatzen hasi zen. Lurrean utzi zuen, eta oinaz kolpetxo batzuk jo zizkionean, aurrerantz irristatu zen, harri-koskorrek izotzaren gainean egiten duten bezala. Burua albo batera mugitu zuen, ideia bat bururatzen zitzaionean egin ohi zuen bezala.

Bitartean, Aitak marmarka jarraitu zuen, suari adaxkak eta belarra botatzen zizkiola. Gris koloreko ke haritxo bat ateratzen hasi zen. Iggyk harri lau handiaren gainean oin bat jarri zuen, eta astiro bultza egin zionean, pixka bat irristatu

